



GIZA ETA ARTE-KULTURARAKO KONPETENTZIA

Marko teorikoa





Hezkuntza Berriztatzea



Hezkuntza Ikuskaritza



ISEI-IVEI



HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE
ETA IKERKETA DAIRA

DEPARTAMENTO DE EDUCACION,
UNIBERSIDADES E INVESTIGACION

2012ko azaroa.

GIZA ETA ARTE-KULTURARAKO KONPETENTZIA

| | | |
|---|------------|----|
| | Aurkibidea | 1 |
| 1. Konpetentziaren justifikazioa..... | | 2 |
| 1.1. Oinarriak eta aurrekariak..... | | 2 |
| 1.2. Konpetentziaren giltzarriak..... | | 4 |
| 2. Konpetentziaren deskribapena..... | | 5 |
| 3. Giza eta arte-kulturarako konpetentziaren dimentsioak..... | | 9 |
| 4. Azpi-konpetentzia bakoitzaren adierazleak eta horien mailaketa..... | | 11 |
| 4.1. Lehen Hezkuntzako 4. mailako azpi-konpetentzia bakoitzaren adierazleak eta mailaketa..... | | 11 |
| 4.2. Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 2. mailako azpi-konpetentzia bakoitzaren adierazleak eta mailaketa..... | | 22 |

1. KONPETENTZIAREN JUSTIFIKAZIOA

1.1. Oinarriak eta aurrekariak

Bertako zein nazioarteko erakunde ugari aitortu dutenez, kulturak eta arteak funtzio garrantzitsua betetzen dute gizarte modernoak osatzeko eta egungo munduaren konplexutasunak ulertzeko; horrez gain, aniztasunetik harago, oso baliagarriak dira komunean dugun oinarri etikoaz baliatuta erlazionatzen lagunduko diguten soluzioetara heltzeko.

Hala, honako hau adierazi du Hezkuntza Artistikoaren Munduko Biltzarrek¹: «*Hezkuntza artistikoak gaitasun fisiko, intelektual eta sortzaileak batzen dituen hezkuntza garatzen laguntzen du, eta hezkuntzaren, kulturaren eta arteen arteko harreman dinamiko eta eraginkorrek sortzea ahalbidetzen du. Gaitasun horiek garrantzi berezia dute XXI. mendeko gizartearen erronkei aurre egiteko. (...) Hezkuntza artistikoari esker, ikasten ari diren pertsonak lanerako behar dituzten trebetasunak bereganatzen dituzte, eta, gainera, sentimenduak adierazteko, inguruko mundua kritikoki ebaluatzeko, eta giza existentziaren hainbat alderditan aktiboki parte hartzeko aukera izaten dute».*

Irudimena, sormena eta berrikuntza gizaki guztiok ditugun ezaugarriak dira, eta landu, hauteman eta aplikatu egin daitezke, bestelako gaitasun eta trebetasunak irakasten eta ikasten ditugun bezalaxe. Nazioarteko lehiakortasuna, migrazioa, kultura-aniztasuna, aurrerapen teknologikoak eta ezagutzaren ekonomiaren garapena hazten ari den globalizazioaren erronkak dira, eta mundua gero eta leku konplexuagoa, ezegonkorragoa eta aldakorragoa bihurtzen dute. Hezkuntza sistema, hain zuzen ere, funtsezko tresna da pertsonak mundu horretan duten funtzioa bete ahal izan dezaten.

Gizartearen aldaketok eta haiek sortutako eskaerek hezkuntzaren paradigma ere aldarazi egin dute. Hala, ikasle guztiok ere oinarrizko konpetentziak lortzeko helburuarekin heziketa integrala sustatu nahi izan da, norberaren errealizazio pertsonal eta soziala, heldutasunean erabat txertatu ahal izatea, eta bizi guztian ikasten jarraitzeko gaitasuna bermatzeko.

Ondorioz, eta oinarrizko konpetentziei buruzko hausnarketa-prozesuaren hasierako dokumentuetatik abiatuta (DeSeCo txostena, *Konpetentzien Definizioa eta Hautaketa*), Europar Batasunak ikasketa iraunkorra ahalbidetzeko oinarrizko konpetentzia batzuk ezartzea beharrezkotzat jo du, estatu kideen hezkuntza-sistemarako erreferentzia izan daitezen. Oinarrizko konpetentzia horiek honela definitzen ditu: «*Pertsona guztiok beren errealizazio*

¹ UNESCO: *Hezkuntza Artistikorako Ibilbide Orria*. Hezkuntza Artistikoaren Munduko Biltzarra: XXI. menderako gaitasun sortzaileak eraikitzen. Lisboa, 2006ko martxoak 6-9 (http://portal.unesco.org/culture/es/ev.php-URL_ID=31381&URL_DO=DO_TOPIC&URL_SECTION=201.html).

eta garapen pertsonalerako, txertaketarako eta lanerako behar dituzten ezagutza, trebetasun eta jarreraren sorta multifuntzional eta eskualdagarria»².

Hainbat proposamenek giza eta arte-kulturarako konpetentzia Europako hezkuntza espazioak oinarrian izan behar dituen zortzi oinarritzko konpetentzien artean biltzen dute. Hala, Europar Batasunak egindako azken proposamenean, *Ikasketa iraunkorrerako funtsezko konpetentziak, Europako erreferentzia esparrua*³ izeneko dokumentuak eskola curriculumetako eremu eta materia tradizionaletatik gertuago dagoen formulazioa egiten du, eta, *Kontzientzia eta adierazpen kulturalak* izenburupean, honela definitzen du konpetentzia hori: «*Ideiak, esperientziak eta emozioak adieraztearen garrantziaz jabetzea, hainbat baliabide erabilia: musika, arte eszenikoak, literatura eta arte plastikoak, besteak beste*».

Bestalde, konpetentzia horrekin lotutako jarreraren aipamen berezia egiten du: «*Tokian tokiko, zein nazio edo Europa mailako ondare kulturalaz jabetzea, eta hark munduan duen tokia ezagutzea, baita norberaren kultura eta nortasuna ondo ulertzeko oinarritzkoa den adierazpen kulturalen aniztasunarekiko errespetua eta jarrera irekia ere*».

Bestela esanda, Europar Batasunaren planteamenduaren arabera, derrigorrezko hezkuntzak giza eta arte-kulturarako konpetentziaren lorpena errazteko konpromisoa hartu behar du, horrela, herritarren aurrerapenarekin batera, eraldatze sozial eta kulturala bultzatzeko.

Ildo horretatik, Eurydice-k (Hezkuntzari buruzko Europako informazio-sareak) 2009ko martxoan Europako Parlamentuak onarturiko *Ikasketa Artistikoei buruzko erabakia* aipatzen du *Hezkuntza artistiko eta kulturala, Europako eskolen testuinguruan (2009)* izeneko dokumentuan. Zera adierazi zuen lan horretan: «*Hezkuntza artistiko eta kulturala derrigorrezkoa izan beharko litzateke hezkuntza-maila guztietan*»⁴.

² DeSeCo txostena (*Konpetentzi Gakoen Definizioa eta Hautaketa*), Ekonomia Lankidetzeta eta Garapenerako Antolakundeak (ELGAK) egindakoa, ingelesez argitaratu zen aurrena, 2003an. (www.OECD.org/ed/statistics/deseco).

³ EUROPAKO PARLAMENTUAREN ETA KONTSEILUAREN GOMENDIOA, 2006ko abenduaren 18koa, ikaskuntza iraunkorrerako giltzarri diren gaitasunei buruzkoa. Europar Batasuneko Aldizkari Ofiziala, 2006-12-30. (http://europa.eu/legislation_summaries/education_training_youth/lifelong_learning/c11090_es.htm).

⁴ Eurydice, 2009b. Hezkuntza artistiko eta kulturala Europako eskola-testuinguruan 2009. Brusela: EACEA/Eurydice (<http://www.oei.es/noticias/spip.php?article8406> eta http://eacea.ec.europa.eu/education/eurydice/documents/thematic_reports/113ES.pdf).

1.2. Konpetenziaren giltzarriak

Giza eta arte-kulturarako konpetentzia gure ikasleak bizitzarako prestatzeko oinarri-oinarrizko euskarria da; horregatik, derrigorrezko hezkuntzak konpetentzia horren lorpena erraztu behar du.

Konpetentzia horren bitartez, ikasleen eta prozedura artistikoen zein haien kulturako elementuen arteko lotura ahalbidetzen da, eta arteak nahiz kulturak gizakion bizitzan bete duten eta oraindik ere betetzen duten funtzioa ulertzea errazten.

Halaber, konpetentzia hori garatzearekin batera, garapen estetikoa indartu eta sormen gaitasuna, ekintzailetasuna eta izaera kritikoa sustatzen dira, betiere lan artistikoaren bitartez; hau da, azken batean ikasleen sormena, irudimena eta adimen emozionala estimulatu eta kritikoki hausnartzeko gaitasuna garatzen da. Konpetentzia horri esker, erraztasun handiagoz eskura daiteke norberaren autonomia, eta ekintza- zein pentsamendu-askatasuna ere sustatzen du.

Kulturaren eta artearen esparruko ezagutza eta sentsibilizazioa oinarri hartuta, konpetentzia hori eskuratzeko aniztasun kulturala sustatzen eta mantentzen laguntzen du; betiere, norberaren ondare kulturala zein egungo herrialde eta talde kulturalen adierazpenak erreferentziatzat hartuta.

Bestalde, giza eta arte-kulturarako konpetentzia zentzu zabalean ulertu beharra dago, hizkera artistiko tradizioaletatik harago joanda; hots, gure garaiko konplexutasunak ulertzeko eta mundu hobe batean elkartasunean bizi ahal izateko soluzioak imajinatzeko tresna modura. Donostia 2016ko Europako Hiriburu Kulturala izateko proposamenean, hala adierazi zuten ordezkariak: *«Gure ustez, pertsonekin zerikusia duen eta garatzeko balio duen guztia da kultura. Taxutzen gaituena, egiten gaituena. Kultura antzerkia da, musika, dantza... Baina zera ere bada: naturarekin zer-nolako harremana daukagun, hiriak nola eraikitzen ditugun, teknologia eta objektuak nola erabiltzen ditugun, zer kontatu diguten, zer hizkuntza baliatzen dugun, zer bizi izan dugun. Izan ere, gutako bakoitzak ezberdin sentitzen ditu emozioak, ezberdin mugitzen da, ezberdin interpretatzen du mundua, baina taldearen barnean hazten eta garatzen da, eta erkidegoko kide da»⁵.*

⁵ Donostia 2016ko Europako hiriburu kulturala izateko adierazpen instituzionala. (http://www.sansebastian2016.eu/web/guest/ss_ciudad_candidata/declaracion).

2. Konpetentziaren deskribapena

Giza eta arte-kulturarako konpetentziaz ari garenean, adierazpen kultural eta artistiko ezberdinak ezagutzeaz, ulertzeaz, estimatzeaz eta kritikoki baloratzeaz ari gara, baita haiek aberastasun- eta gozamen-iturri gisa erabiltzeaz eta herrien ondareztat hartzeaz ere. Halaber, konpetentzia hori izateak hizkera artistikoen oinarritzko teknika, baliabide eta konbentzioak ezagutzea ere esan nahi du, eta haren kodeak erabiltzea, sentimenduak inizatibaz, irudimenez eta sormenez adierazi ahal izateko.

Adierazpen kulturalak kritikoki ezagutu, ulertu, estimatu eta baloratzeko, adierazpen horien eta gizartearen –lanok sortzen diren garaiko pentsamoldearen eta aukera teknikoek– arteko loturak identifikatu behar dira, edota lanaren eta hura sortu duen pertsona edo taldearen artekoak. Bestalde, bizitza kulturean parte hartzeko eta nork bere gaitasun estetikoak garatzeko interesa agertu beharra dago, eta bakoitzaren zein besteen komunitateetako ondare kultural eta artistikoa kontserbatzen lagundu behar da.

Horrez gain, pentsamoldeen, korrante estetikoek, moden eta gustuen bilakaeraz jabetzea ere ezinbestekoa da adierazpen kulturalak ulertu ahal izateko. Aintzat hartzekoa da, gainera, faktore estetikoek pertsonen eta gizartearen eguneroko bizitzan izan duten garrantzi adierazgarri eta komunikatiboa ere; batez ere, gaur egunean.

Konpetentzia horren baitan, pentsaera trebetasun dibergente zein konbergenteak erabili behar dira; izan ere, besteak beste, bakoitzaren zein besteen ideiak eta sentimenduak berregin beharra dago. Bestalde, ulertzeko eta adierazteko iturri, forma eta bideak aurkitu behar dira, baita emaitza jakin batzuk lortzeko beharrezkoak diren prozedurak ebaluatu eta egokitu ere. Azken batean, adieraztea eta komunikatzea zein jasotzea, ulertzea eta aberastea errazten duen konpetentzia da, artearen eta kulturaren munduko hainbat errealitate eta ekoizpeni esker.

Halaber, eta jarduera kultural eta artistikoen talde-lana eskatzen dutela kontuan izanda, beharrezkoa da elkarlanerako trebatuta egotea, azken emaitza jakin bat lortu ahal izateko, eta besteen ekimen eta ekarpenak bultzatu eta estimatzearen garrantziaz jakitun egoteko.

Hortaz, konpetentzia hori aurrera eramanda, pertsonen garapen integrala susta daiteke, ez baitago etorkizunean artista izango direnak prestatzera berezirik zuzenduta. Sentsibilitatea garatzea eta esperientzia estetikoa zein sormenezko pentsamoldea lantzea proposatzen du, bestelako ezagutzar- arloekin lan egiteko estrategiez osatutako proiektuak oinarri hartuta, eta gainerako oinarritzko konpetentziak garatzen lagunduta.

Giza eta arte-kulturarako konpetentziaren esparrua mugatzerakoan, sarri loturak eta teilakatzeak gertatzen dira gainerako oinarritzko konpetentziekin. Ildo horretatik, lotura horietako batzuk azpimarratuko ditugu, nahiz eta, bestalde,

koherenteak diren sare erara osatuta dagoen oinarrizko konpetentzien ereduarekin, denak ere elkarrekin lotzen eta estimulatzen baitira.

Zientzia-, teknologia- eta osasun-kulturarako konpetentziarekin partekatuta dago ondare kulturalari dagokion eremua, zientzia ere horren parte baita, ematen dituen ezagutzengatik eta erabiltzen dituen prozesuengatik. Ezagutza zientifikoaren kasuan bezalaxe, giza eta arte-kulturarako konpetentziaren helburua pertsonen munduaren ikuspegi bat ematea da; pentsatzeko, ulertzeko, hausnartzeko eta epaitzeko era bat eskaintzea; balioen eta jarreraren multzo bat transmititzea; arazoei aurre egiteko, pertsonekin harremanetan jartzeko eta ingurunea hobetzeko modu bat ematea; kulturaren eta zientziaren parte den egitura bat eskaintzea.

Informazioa tratatzeko eta teknologia digitala erabiltzeko konpetentziarekin partekatzen du, bestalde, informazioaren tratamendua (iturriak identifikatzea, informazio esanguratsua hautatzea eta prozesatzea, analisi kritikoa egitea, berregitea...). Eremu komun horretaz gain, teknologia berriak artea eta kultura sortu, ezagutu eta zabaltzeko erabiltzen direnez, konpetentzia horrekin bilaketa- eta ikerketa-sinergia komunak sortzen dira.

Halaber, **hizkuntza-komunikaziorako konpetentziarekin** harreman estua daukate elkarrizketan jarduteak, entzuteak, proposamenak eta epaiketak egiteak, balorazioak egiteak, ekoizpen artistiko eta kulturei buruzko ideiak adierazi eta trukatzeko, ekoizpen artistikoen oinarri gisa testuak erabiltzeko... Gainera, harreman hori are estuagoa da, kontuan hartuz gero literatura arteen oinarrizko osagaia dela eta hizkuntzak herritarren ondare ez-materiala direla.

Giza eta arte-kulturarako konpetentziak badu zerikusirik **gizarterako eta herritartasunerako konpetentziarekin**, biek ere hainbat jarduera partekatzen baitituzte: aniztasunaren gizartean askotariko adierazpenak kritikoki baloratzea, nortasun pertsonalaren kontzientzia garatzea, gizartean bilakaera ulertzea, ekintza artistiko edo kultural jakin bat hura sortu edo kontsumitu den garaian kokatzen jakitea, emakumeek mundu artistikoan sufritu duten bazterkeriaz jabetzea, bakoitzaren inguruko fenomeno konplexuen eta giza adierazpen eta sormen forma ugarien inguruko iritzi autonomoa sortzea, eta haietan parte hartuz gozatzea.

Ikasten ikasteko konpetentziaren ezaugarri bereizgarri diren beste hainbat jarduerarekin ere lotura zuzena du: autonomia pertsonalaren finkatzea, nortasun indibidualaren kontzientzia hartzea, ikasketa-prozesuan protagonismo pertsonala garatzea, jarrera intelektual eta emozionalak erabiltzea, eta abar.

Bestalde, giza eta arte-kulturarako konpetentziarekin bat egiten dute **norberaren autonomiarako eta ekimenerako konpetentziaren** ezaugarri batzuek ere; adibidez, balio eta jarrera pertsonalen garapenak, besteak beste, erantzukizuna, autonomia, autokritika, pertseberantzia, bakoitzaren aukeren kontzientzia, arriskuez jabetzea alderdi onuragarriak eta zailtasunak alderatuta...

Eta, azkenik, **matematikarako konpetentziarekin** lotzen dira sormen artistikoaren baitan informazio kuantitatibo eta espaziala interpretatzea, arazoak aztertzeko logika aplikatzea, soluzioak bilatzea, neurriak, proportzioak, tarteak, distantziak, eta abar erabili behar izatea... Interes komuneko espazio horiek argi eta garbi erakusten digute behar-beharrezkoa dela gizakiarentzat baliabide sorta zabal batekin lan egitea, mundua ondo ulertu ahal izateko, eta, noski, logika eta sena, pentsamolde konbergentea eta dibergentea zein arrazionala eta emoziozkoa zatitzen dituen joera topikoetatik harago.

Orain arte esandakoa laburbilduz, eta egindako deskribapena zehazte aldera, giza eta arte-kulturarako konpetentziari buruzko azken ñabardura batzuk egitea komeni da.

Labur esanda, konpetentzia honek esperientzia estetikoa, sormenezko pentsaera eta adierazpen sinbolikoa indartzea eta garatzea helburu duten ezagutzak eta praktikak biltzen ditu; betiere, hainbat eratako adierazpenak ematen dituzten adierazpen materialen zein ez-materialen bitartez, soinuak, irudiak, testuak, gorputzak eta artearekin zein ondarearekin erlazionatzeko ditugun moduak bat eginda. Gainera, adierazpen eta hizkera horiek ekoizpen bereziak sortzeko nahasten dira sarri, eredu akademikoak eta sailkapen artistikoak apurtuta.

Hala, konpetentzia honek hainbat gaitasun, trebetasun eta jarrera biltzen ditu, ondoko helburu hauek dituztenak:

- Kode artistikoak irudimenez eta sormenez erabilia, sentimenduak adierazi eta komunikatzea.
- Hizkera artistikoen zein ondare kulturalako lan nagusien teknika, baliabide eta konbentzioak ezagutzea.
- Ondare historiko, artistiko eta kulturala baloratzea, eta hura kontserbatzea zein garrantzitsua den ulertzea.
- Bizitza kultural eta artistikoan parte hartzea, testuinguru guztietan ere.

Hizkera artistikoak irudimenez eta sormenez erabilia **sentimenduak adierazi eta komunikatzeko**, hizkera horien inguruko oinarrizko ezagutza izan behar da, eta haien funtsa, elementuak, berezitasunak eta kode propioak ulertu behar dira. Hizkera horien oinarriak ezagututa, posible da proiektu eta ekoizpen artistikoak sortzea; izan ere, hezkuntza osatzen duten elementuetako bat dira, eta gure ikasleen garapen pertsonal zein sozialean parte hartzen dute.

Estimazio kritikoak, edo hark inplizituki biltzen duen balorazio estetikoak, lan edo interpretazio baten funtsezko ezaugarrien inguruan ikasleak sentsibilizatzeari egiten dio erreferentzia zehazki, baita norberak zein besteek egindako lanak kritikoki baloratzeko gaitasuna garatzeari ere.

Arteak ezagutzeko eta ulertzeko, beharrezkoa da hainbat estilo eta genero artistiko ikastea, eta bakoitzeko artelan espezifikoaren bilduma barneratzea. Hain zuzen ere, ulermen artistikoaren muinean, hainbat kontzeptu artistiko aurki ditzakegu: adierazpen artistiko desberdinen ezaugarrien ulermena, edota artistaren, haren lanaren eta haren ingurune kultural, fisiko eta ekonomikoaren arteko harremana.

Ondare kulturala ulertzeko, ondare hori materiala zein ez-materiala izan, obra artistikoetara hurbildu beharra dago, hori osatzen duten elementuetara, eta hainbat garai historikotan sortutako obren eta artista jakin batzuen lanen ezaugarriak ikasi behar dira. Eskola leku egokia da obra horiek ezagutzeko, merezi duten balioa emateko, eta haien berreskuratzea eta kontserbazioa bultzatzeko, baita gizabanakoaren edo taldeko gozamenerako jarduerak antolatzeke ere.

Ondare historiko eta kulturalaren balorazioa lotuta dago nortasun kulturalaren sorrera eta transmisioarekin. Gainera, forma kulturalak ikastearen helburua herrialde edo talde bateko kide izatearen kontzientzia garatzea da.

Ildo horretatik, indarrean dagoen Kulturaren Euskal Planak (2004)⁶ zentzu zabalean definitzen du kultura; honela, hain zuzen ere: «*Kultura-ingurunea eta gizarte-harremanak bere esparru sinboliko eta komunikatiboetan nahiz balioen alorrean kudeatzeko ematen diren erantzunen multzoa da, eta gizarte-mailako elkarrenergina nahiz onarpena edo talde bateko kide izatearen sentimendua ahalbidetzen ditu*».

Euskal kulturari dagokionez, funtsa zein ezaugarriak adostea zaila baldin bada ere, honako hau baieztatu daiteke: «*Euskara euskal kulturaren oinarri nagusietako bat da, eta euskaldunon berezko hizkuntza (...); historian zehar euskal kultura sortzeko erabili izan den eta erabiltzen den tresnetako bat. Euskara eta euskal kultura estuki lotuta daudenez, euskarak euskal kulturaren etorkizuna baldintzatzen du, eta (...) garapen kultural orokor baten mende dago, euskal kultura sortu, ekoitzi eta zabaltzeko gai guztietan*».

Bestalde, Kulturaren Euskal Planak honako hau zehazten du euskal kulturaren sorrerari buruz: «*Oinordetzan hartutako kultura nuklearraren, integratutako beste kultura batzuen eta gaur egungo euskaldunen kulturaren emaitza dugu euskal kultura. Lehenengo osagaitik, historia, hizkuntza, sinboloak, erakundeak, artea eta bilakaeran dauden bizimoduak jaso ditugu; bigarrenetik, aberastasuna eta beste hizkuntza batzuk. Eta hirugarrenetik, berriz, aniztasuna, sintesia eta etengabeko birdefinizioa*».

Plan horrek bi elementu nagusi ditu oinarrian: sormena eta identitatea: «*Batetik, sormenaren ingurukoa, gure arbasoen sormenak utzitakoa (ondarea), gaurko gizon-emakumeena, eta sormen horren gainean sortutako industriena; bestetik identitatearen ingurukoa, talde bakoitzeko kide izatearen sentimenduari*

⁶ EAEko Kultura Plana. Eusko Jaurlaritzako Kultura Saila. Vitoria-Gasteiz, 2004 (http://www.euskadi.net/r33-2732/es/contenidos/informacion/plan_vasco_cultura/es_6571/adjuntos/plan_vasco_cultura_e.pdf).

dagokion ardatza». Horregatik ari da euskal kultura heterogeneotasun-adierazpen gisa hazten.

Identitate kulturala horrela ulertzen badugu, pentsatzekoa da **aniztasun kulturalaren** helburua praktika kultural eta adierazpen artistiko espezifikoengandik inguruan eta hainbat herrialde eta talde kulturalen ondare kulturalaren inguruan sensibilizatzea dela, baita aniztasun horren balio positiboaz jabetzea ere.

Konpetentzia hau geureganatzeko modu zuzenetako bat eremu akademikoetatik kanpoko **bizitza kulturean parte hartzea** da. Hezitzaileek heziketa-prozesuan laguntzeko erabiltzen dituzten baliabideak dira, besteak beste, erakunde kulturalak, museoak, entzunaretoak, zentro kulturalak, arte-galeriak, antzokiak zein industria kulturek eskaintzen dituzten produktuak (esate baterako, argialetxeak, musika, zinea, telebista); horiek guztiak bide ezin hobeak dira artearen eta kulturen esparrura gerturatzeko.

Bizitza kulturean parte hartuta eta produktu artistikoak kontsumituta, inplizituki sustatzen da publikoak obra kulturei, autoreei eta euren **jabetza-eskubideei** zor dieten errespetua.

Halaber, **informazioarako eta komunikazioarako teknologiek** artea eta kultura zabaltzeko orduan duten garrantzia azpimarratu behar da, hainbat hezkuntza eragilerik funtzio berriak ematen dizkietelako eta hezitzaileen, artisten eta, oro har, gizartearen elkarlana bultzatzen dutelako.

3. Giza eta arte-kulturarako konpetentziaren dimentsioak

Giza eta arte-kulturarako konpetentzia bloke handitan egituratuta dago; guk **dimentsio** deitzen diegu bloke horiei. Dimentsio horietako bakoitzak **azpi-konpetentzia** sorta bat du, eta, azpi-konpetentzia horietako bakoitzerako, **ebaluazio-adierazleak** zehaztu ditugu. Azken horiek ikasleek egin behar dituzten lan edo ariketa zehatzak dira, konpetentzia erabat menperatzen duten erakusteko.

Konpetentzia honen kasuan, adierazleek esango digute ikasleek zer jakin behar duten eta zer egiteko gai izan behar diren adierazpen kultural eta artistikoen oinarrizko ezagutza edukitzeko; pentsaera dibergentearen eta elkarlanaren trebetasunak aplikatzeko; adierazpen artistiko eta kulturalen aniztasunaren aurrean jarrera irekia, errespetuzkoa eta kritikoa izateko; bakoitzaren gaitasun estetiko eta sortzailea lantzeko; bizitza kulturalen parte hartzeko; eta ondare kultural eta artistikoa kontserbatzen laguntzeko.

Hona kultura humanistiko eta artistikorako gaitasuna osatzen duten bi dimentsioak:

- **Kultura eta artea ulertzea**
- **Kultura eta artea sortzea**

Dimentsio horietako bakoitzak ezaugarri jakin batzuk ditu.

Kultura eta artea ulertzea

ARTEA ULERTZEKO dimentsioak hainbat oinarrizko ahalmen, ezagutza eta jarrera biltzen ditu, kultura bisualaren produktuak, zein musikarenak, literaturarenak eta eszenikoak behatu, entzun, aztertu, interpretatu eta gozatzeko, produktu horiek arte gisa ezagutzen dugun horren eremukoak izan ala ez.

Bestalde, ikasleen errealizazio pertsonal, akademiko eta sozialerako beste hainbat alderdi ere aintzat hartu behar dira: balio kulturalen ulermena, interpretazio kritikoa eta estimazioa, hainbat gertaera artistiko edo estetikoren artean harreman konplexuak egiteko gaitasuna, bakoitzaren bizipen estetikoen inguruan eta arteak identitateak finkatzeko duen gaitasunaren inguruan hausnartzeko gaitasuna.

Azken batean, dimentsio honekin esperientzia estetikoak sentitu eta ekoizteko gizakiek duten beharraren inguruan hausnarrarazi nahi da, baita kulturek garatu dituzten askotariko ideia eta tresnen, bete behar izan dituzten funtzio sozialen, eta gure zein besteen bizitzetan duten esanahiaren inguruan ere.

Kultura eta artea sortzea

ARTEA SORTZEKO dimentsioak ikasleek behar dituzten hainbat oinarriko gaitasun, ezagutza eta jarrera biltzen ditu, irudien, musikaren, mugimenduen, hitzaren eta beste hainbat bitartez adierazi, landu, ekoiztu eta komunikatzeko, besteak beste.

Ikasleen eskola-garapenean zein garapen pertsonal eta sozialean parte hartzen dute hainbat alderdik: jasotako produktu artistikoei erantzuteko edo haien inguruko elkarrizketa bat eratzeko diskurtso artistikoak sortu eta ekoizpen pertsonalak lantzeko gaitasuna, jakin-mina eta bilaketa pizten duten zein ideien eta sentimenduen adierazpena ahalbidetzen duten proiektu artistikoak sortzea, bakoitzaren identitatea adieraztea...

Dimentsio honi esker, ikasleek jakin beharko lukete mezu artistiko eguneratuak eta eguneroko bizitzari, gertutasunari lotuta daudenak sortzea denoi dagokigun adierazpen- eta komunikazio-bidea dela, eta ez dela gutxi batzuen ondare izatera mugatzen.

Hau da kompetenziaren egitura orokorra:

1. dimentsioa: Kultura eta artea ulertzea

1. Adierazpen eta ekoizpen artistikoak identifikatu eta baloratzea, sortu diren garai eta testuinguru kulturalaren barruan.
2. Arteen eta kulturaren produktuei pertsonak eta gizarteek eman dizkieten erabilera eta funtzio sozialak interpretatzea.
3. Herritarren eta kulturen oinarri gisa ondare artistiko eta kulturala osatzen duten elementuak estimatzea, eta haiek kontserbatzen eta berritzen laguntzea.

2. dimentsioa: Kultura eta artea sortzea

4. Produktu artistikoak sortzea emozioak, bizipenak eta ideiak adierazteko, irudikatzeko eta komunikatzeko modu gisa.
5. Hizkera artistikoen inguruko ezagutza nahikoa izatea, adierazteko eta komunikatzeko baliabide gisa erabili ahal izateko, eta obra artistiko eta kulturaletan identifikatu ahal izateko.
6. Sormen artistikoko prozesuetan beste pertsonekin elkarlanean jardutearen garrantzia baloratzea.

4. Azpi-konpetentzia bakoitzaren adierazleak eta horien mailaketa

Giza eta arte-kulturarako konpetentzia bi dimentsiotan egituratuta dago. Halaber, Lehen Hezkuntzako 4. mailarako eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 2. mailarako balio duten azpi-konpetentzia komunak ere biltzen ditu.

Maila horietako bakoitzerako, adierazleen multzo bat definitu da, azpi-konpetentzia bakoitzari lotuta.

4.1. Lehen Hezkuntzako 4. mailako azpikonpetentzia bakoitzaren adierazleak eta mailaketa

Hasierako mailan kokatzen dira ekoizpen artistikoetan ideiak, bizipenak eta esperientziak irudikatzeko gai diren ikasleak, oinarriko prozesuak eta teknika errazak erabilia. Bestalde, prozesu eta teknika horiek ekoizpen artistiko batzuetan identifikatzeko gai ere badira. Talde honek biltzen ditu, halaber, askotariko baliabide, tresna, material eta euskarri erabilia esperimendatzeko gai direnak; adierazteko eta komunikatzeko helburuekin, betiere.

Maila honetan dauden ikasleek euren lan artistikoen garapenean ordena logikoa mantentzen dute, eta lan horietan euren sentimenduak adierazteko eta mailaz igotzeko esfortzua egiten dute.

Maila honetan, ikasleak gai dira euren ekoizpen artistikoak beste pertsonen esperientziekin, gertuko testuinguruetakoa artistekin eta beste kulturetako adierazpenekin erlazionatzeko, eta arteen nahiz produktu kulturalen funtzio eta erabilera batzuk identifika ditzakete, garai eta testuinguru kultural jakin batzuetan. Ikasle hauek, bestalde, erraztasun handiz identifikatzen dituzte ekoizpen artistiko eta kultural batzuk lantzeko moduen ezaugarri nabarmenak. Gainera, garai historiko eta kultural ezberdinetako adierazpen estetikoaren arteko berdintasun eta ezberdintasunak antzemateko gai ere badira.

Bukatzeko, ikasleak taldeko ekoizpen artistiko errazetan parte hartzeko gai izan behar dira, egoerari egoki moldatuta.

Erdi-mailan kokatzen dira, hasierako maila horretan deskribatutako gaitasunez gain, ekoizpen artistikoak egiterakoan oinarriko teknika eta prozedurak kontzienteki erabiltzen dituzten ikasleak. Bestalde, eskura dituen ekoizpen artistikoen prozesu jakin batzuk antzemateko gai ere bada.

Halaber, maila honetako ikasleek beste pertsonen ideietan aldaketak egin eta inprobisazio errazak ere gauza ditzakete, euren ekoizpen artistikoetan ideiak, sentimenduak eta bizipenak adierazterakoan. Gainera, sortu behar duten proiektuaren inguruan hausnartzeko eta guztia aurreikusitako helburu baten arabera antolatzeko gai dira.

Gertaera artistikoak hainbat gizarte eta garaitako kulturen zati direla ulertzeko ahalmena dute ikasle horiek, eta faktore kultural, sozial zein pertsonalen arabera adierazpen artistikoen esanahi eta erabilera batzuk ere identifika ditzakete. Horrez gain, hainbat ekoizpen artistikoren ezaugarri nabarmenak momentu historiko edo kulturekin lotzeko gai dira, eta kultura ezberdinetan sortu diren ekoizpen artistikoen arteko desberdintasunak interpreta ditzakete.

Maila honetan, halaber, taldean osatutako ekoizpen artistikoetan parte hartu dezakete inongo arazorik gabe, arauak errespetatuta, proposamenak eginda eta soluzioak bilatuta.

Maila aurreratuan dauden ikasleek, hasierako mailan eta erdi-mailan deskribatutako gaitasunez gain, proposatutakoaren asmoak transmititzeko baliabide eta konbentzio egokiak erabiltzen dituzte ekoizpen artistikoak egiterakoan, eta horren arrazoiak ere eman ditzakete. Maila honetan egongo lirake, baita ere, ekoizpenetan teknika eta konbentzioei lotutako soluzioak txertatzeko gai direnak, horiek eskura dituen adierazpen artistiko eta kulturaletatik hartu ondoren.

Ikasleek ingurunean eta ekoizpen artistikoetan bila ditzakete adierazteko eta komunikatzeko dauzkaten asmoekin lotura daukaten erreferente eta ideiak, gero beraiek sortutako ekoizpenetan aplikatzeko. Bestalde, gai dira euren lan-prozesua era arrazoituan planifikatzeko, prozesu hori beren adierazpen- eta komunikazio-beharrei egokituta.

Hainbat adierazmolde estetiko eta artistiko aldera ditzake: musika, arte bisualak, dantza, literatura... eta egiten dituen analisi eta interpretazioak arrazoitzen ditu. Halaber, obra artistiko horiek sortu diren gizartearen inguruko galderak egiten ditu, baita lanok gizartean duten edo izan duten funtzioen ingurukoak ere. Artearen eta tradizioen inguruan interesa adierazten du, eta melodiak, dantzak eta gure kulturako bestelako adierazpen artistikoak identifikatzeko gauza da, gainera.

Azkenik, maila honetan lantaldeko jardueretan parte hartzeko gai dira ikasleak, eta taldearen lanak emaitzarik onena izan dezan behar bezala parte hartzen dute.

1. dimentsioa: KULTURA ETA ARTEA ULERTZEA

1. Adierazpen eta ekoizpen artistikoak identifikatu eta baloratzea, sortu diren garai eta testuinguru kulturalaren barruan.

- Hainbat adierazpen eta produktu kultural zein artistiko identifikatzen ditu «goi-kultura» gisa ezagutzen dugun horretan zein «herri-kulturaren» esparruan, baita eguneroko bizitzan ikus daitezkeenak ere.
- Ekoizpen artistiko eta kulturalen inguruko faktore historiko eta sozialak aztertu eta bereizten ditu, eta berdin lanok sortu diren testuinguruen ezaugarriekin ere.
- Euskal Herriko artista batzuk –gizon zein emakume– eta obra eta adierazpen kulturalak ezagutzen ditu, hainbat esparru eta adierazpen formatan; gainera, horietako bakoitza dagokion garai historiko eta testuinguru sozialarekin lotzeko gai da.
- Arteen estilo eta joeren ezaugarriak ezagutzen ditu, eta horiek momentu zein ikuspegi estetiko zehatzen osagarri gisa interpretatzeko gai da.
- Adierazpen kulturalen inguruko iritziak adierazteko, pertzepzio- eta komunikazio-ahalmenak erabiltzen ditu, eta jarrera egokia du besteen iritziak entzuteko eta barneratzeko.
- Aniztasun kulturala eta adierazpen- eta ulermen-era bat baino gehiagoren baterako existentzia baloratzen ditu, eta aberastasun pertsonalari eta bizikidetzari laguntzen dioten motor gisa ulertzen ditu. Bestalde, baztertu egiten ditu genero-, gizarte- eta arraza-diskriminazioarekin lotutako alderdiak.
- Errespetatu egiten ditu bere gustuekin bat ez datozen adierazpen kultural eta artistikoak.
- Hizkera artistikoen presentzia eta elkarrekintza ezagutzen du (bisuala, musikala, plastikoa, eszenikoa eta literarioa), edozein ekoizpen kulturaletan dela ere (zinema, opera, antzerkia, *performanceak*...).
- Era askotako adierazpen kultural eta artistikoak sortu, bildu, banatu eta ikusterakoan informazioaren eta komunikazioaren teknologiek betetzen duten funtzioa ezagutzen du.

| Hasierako maila | Erdi-maila | Maila aurreratua |
|---|---|---|
| - Adierazpen kulturalak bereizi egiten ditu, formatua edo aurkezpen lekua dela-eta: zinema, dantza, musika, pintura, antzerkia... | - Era askotako adierazpen artistikoak identifikatzen ditu eguneroko bizitzan, baina euren izaera dela-eta sistematizatu gabe. | - «Goi-kulturako» adierazpen kultural eta artistiko batzuk «herri-kulturako» adierazpenetatik bereizten ditu. |
| - Adierazpen kultural batzuk duten helburuarekin lotzen ditu; adibidez, aisia (ondo pasatzea). | - Inguruko adierazpen kultural batzuk haien testuinguruarekin lotzen ditu (adibidez, herriko jaiak...). | - Inguruko adierazpen kultural batzuk haien hartzaile posibleekin lotzen ditu (haurrak, gazteak edo helduak). |

| | | |
|---|---|---|
| <p>- Gertuko ingurunean euskal kulturako adierazpen zehatz batzuk identifikatzen ditu, eta batzuetan adierazpen kultural gisa ere ulertzen ditu.</p> <p>- Orokorrean artelan batzuk «zaharrak» direla eta beste batzuk «berriak» edo gaur egungoak direla adierazten du.</p> <p>- Hainbat adierazpen kultural eta estetikoren esanahiak bereizteko gai da lagunduz gero, eta ñabardura gutxiko iritzi pertsonalak ematen ditu, bere gustuen arabera.</p> <p>- Ezagun zaizkion adierazpen kulturalengandik ezberdinak direnen inguruan jakin-mina sentitzen du.</p> <p>- Beste pertsonengan janzteko erak, gustu musikalak eta berak ez dituen ezaugarri kulturalak identifikatzen ditu.</p> <p>- Adierazpen kultural edo estetiko bakoitza bereizita identifikatzen ditu: pintura, musika, literatura... elkarren artean loturak ezarri gabe.</p> <p>- IKTen erabilera identifikatzen du, gehienbat adierazpen kultural edo artistikoak kontsumitzen dituenean.</p> | <p>- Euskal kulturako adierazpen tradizionalenak edo bere adinari lotutakoak aipatzen ditu (jolasak, dantzak, bertsoak, kirolak...).</p> <p>- Ezagun zaizkion adierazpen kultural edo artistikoak sailkatzeko irizpide errazen bat erabiltzen du (adibidez, eliza arkitektura erlijioso gisa, edo udaletxea hiri-arkitekturaren adibide gisa, helburuaren arabera).</p> <p>- Adierazpen kultural eta artistikoei erreparatzen die eta, argibide batzuk jarraituta, bere iritziaren arabera interpretatzen ditu, baita besteen ikuspuntuak entzun ere.</p> <p>- Bere ingurunean beste kulturetako elementuak identifikatzen ditu.</p> <p>- Gustu ezberdinak daudela ulertzen du, eta pertsona bakoitzak bereak adierazteko eskubidea duela.</p> <p>- Ohiko adierazpen kultural batzuetan osagai artistiko bat baino gehiago daudela antzemateko gai da, sistematizatu gabe (adibidez, pelikula batean: testua, interpretazioa, musika...).</p> <p>- IKTak hainbat adierazpen kultural kontsumitzeko balio duten tresnak direla ulertzen du (telebista, Internet), baita sorkuntza artistikoak transmititzeko ere: musika, bideoak...</p> | <p>- Inguruan artelan publikoak ezagutzen ditu: elizak, eskulturak... baita ekipamendu kulturalak ere: zinema, antzokia, museoa...</p> <p>- Adierazpen artistiko eta kulturaletan ezaugarri bereizgarri batzuk hautematen ditu, estiloa edo joera kontuan izanda sailkatzera heldu gabe.</p> <p>- Nolabaiteko autonomiaz behaketa eta irudimena erabiltzen ditu adierazpen kulturalak eta artelanak interpretatzeko, eta besteen iritziak kontuan izaten ditu bere ikuspuntuak azaltzerakoan.</p> <p>- Beste kulturetako adierazpenen inguruko interesa adierazten du, eta euskal kulturarekin dituzten berdintasun eta ezberdintasunak bereizteko gai da.</p> <p>- Jatorri kulturala dela-eta edo adierazmolde ezberdinengatik pertsonak eta taldeak alboratzea baztertzen du.</p> <p>- Adierazpen kultural batean hainbat elementu estetiko eta adierazpen artistiko ugari identifikatzen ditu.</p> <p>- IKTak erabiltzen ditu informatzeko edo hainbat ekoizpen artistiko eta kulturaletara jotzeko.</p> |
|---|---|---|

2. Arteen eta kulturaren produktuei pertsonak eta gizarteak eman dizkieten erabilera eta funtzio sozialak interpretatzea.

- Hainbat garai historikotako edo kultura desberdinetako obra eta adierazpen artistiko zein kulturaletan ideiak, sentimenduak, emozioak eta abar ulertzeko era bat baino gehiago hautematen ditu.
- Denbora eta kultura askotarikoetan, artearen erabilera, funtzio eta esanahiak ulertzen ditu.
- Adierazpen kultural eta artistiko zehatz batzuk pentsatzeko erekin, joera estetikoekin eta modekin lotzen ditu, egungo gizartean batez ere.
- Obra artistikoak sortu eta irudikatzen adierazpen-askatasuna baloratzen du; pertsonen oinarritzko eskubideak errespetatuz, betiere.

| Hasierako maila | Erdi-maila | Maila aurreratua |
|--|---|---|
| <p>- Obra eta adierazpen artistiko jakin batzuetan ideien, sentimenduen edo emozioen adierazpena hautematen du (poztasuna, beldurra, naturaren alderdiak, denboraren joana...).</p> <p>- Adierazpen kultural edo artistiko batzuen oinarritzko erabilerak hautematen ditu, eta loturak ezartzen ditu; adibidez, musika, kondairak eta Gabonetako irudiak, inauterietako mozorroak eta musika...</p> <p>- Adierazpen artistikoak eta produktu kulturalak sailkatzeko gai da, ideia eta ereduaren arabera (erreferente sozial jakin batzuk dituen musika-mota edo arropa, pentsatzeko era ezberdindun liburu edo aldizkariak, izateko era ezberdina dutenen janzteko era eta moda...).</p> <p>- Sormen artistiko edo kulturala araurik ez duen eta oinarritzko eskubideek babesten ez duten jarduera gisa ulertzen du.</p> | <p>- Proposatzen zaion obra-sorta batean ideiak, sentimenduak edo emozioak adierazteko hainbat era hautematen ditu.</p> <p>- Adierazpen kultural eta artistiko batzuen erabilerak deskribatzen ditu, baina horiek sortu ziren testuingurua kontuan izan gabe.</p> <p>- Bere ingurunean eta esperientzia duen esparruetan egungo joera edo mugimendu bateko adierazpen artistiko eta kultural adierazgarrien elementuen, adierazpenen, zantzuen... adibideak ematen ditu.</p> <p>- Adierazpen askatasuna ekoizpen artistiko eta kulturalak egiteko funtsezkoa dela ulertzen du; izan ere, produktu berritzaileak sortzeko oinarri-oinarrian dago askatasun hori.</p> | <p>- Kultura eta/edo garai ezberdinetako obretan ideiak, sentimenduak, emozioak eta abar adierazteko dauden hainbat era azaltzen ditu sinpleki.</p> <p>- Adierazpen artistiko eta kultural esanguratsuen erabilera eta funtzioa baloratzen ditu, eta duten esanahiaren inguruko hipotesiak egin ditzake.</p> <p>- Emakumeek adierazpen kultural eta estetiko batzuetan duten presentzia baloratzen du, eta haien funtzioa asmatzeko gai da (autore gisa, interpreteak, artisauak, adierazpen gisara...).</p> <p>- Egungo mugimendu edo joeraren batek duen ezaugarriren bat identifikatzen du, eta, horri esker, mugimenduari adierazpen kultural edo artistikoak lotu diezazkioke.</p> <p>- Sormen artistiko eta kulturalarekin harremana duten pertsonentzat adierazpen askatasunaren garrantzia baloratzen du, eta hura babestu eta sustatu behar dela ulertzen.</p> |

3. Herritarren eta kulturen oinarri gisa ondare artistiko eta kulturala osatzen duten elementuak estimatzea, eta haiek kontserbatzen eta berritzen laguntzea.

- Ekintza artistikoak eta kultura adierazteko moduak denon ondasunaren eta bere identitate kulturalaren parte gisa identifikatzen ditu.
- Euskal kulturaren ondarea osatzen duten adierazpen kulturalak eta obra artistikoak baloratzen ditu, baita euskal gizartean daukagun aniztasun kulturala ere, pertsonentzat aberasgarri delako eta denon arteko elkarbizitzari ekarpena egiten diolako.
- Ondare kulturala ikertzen du –hainbat espazio- eta denbora-mailatan–, eta adierazpen artistiko eta kulturalen inguruko informazioa bilatu eta antolatzen du.
- Inguruko elkarte, industria eta zerbitzu kulturek ondarea sustatzeko eskaintzen dituzten jarduerak ezagutzen ditu eta haietan parte hartzen du, hura babestu, baloratu eta berreskuratzeko laguntza emanez.
- Era askotako produktu kultural eta artistikoetara jotzeko hautaketa-irizpideak sortu eta aplikatzen ditu, bereziki informazioaren eta komunikazioaren teknologien bitartez banatzen diren produktuen kasuan.
- Ikusmenerako eta entzumenerako atsegina eta osasungarria den ingurunea izatearen garrantzia baloratzen du.
- Jabetza intelektuala eta produktu artistiko edo kultural baten sortzailearen eskubideak errespetatzen ditu.

| Hasierako maila | Erdi-maila | Maila aurreratua |
|--|---|---|
| - Inguruko adierazpen kultural edo artistikoen adibideak ematen ditu, ematen zaizkion ereduak oinarri hartuta. | - «Ondarearen» kontzeptu zabala du, ezagutzen dituen esparru kultural eta artistikoen mugatuta baldin badago ere. | - «Ondare kulturalari» buruzko ulermen zabala garatzen du, askotariko adierazpen- edo sorkuntza-moduekin, horiek ingurukoak zein unibertsalak izan. Halaber, bere ondaretzat jotzen ditu, eta ezagutu eta babestu behar direla ulertzen du. |
| - Euskal gizartean kultura-aniztasuna daukagula hautematen du. | - Euskal kulturako adierazpen kultural batzuk identifikatu eta deskribatzen ditu, baita beste leku eta kulturetatik datozen batzuk ere. | - Euskal Herriko adierazpen kulturalen aniztasuna baloratzen du, eta beste kultura eta lekuetatik etorritako ekarpenak identifikatzen ditu. |
| - Ondare kulturalaren ezaugarri edo adierazpen baten inguruko informazioa bilatzen du, laguntzarekin. | - Ondare artistiko eta kulturalaren inguruko informazioa bilatu eta berregiten du, eman zaizkion pausuak jarraituta. | - Adierazpen kultural eta artistikoen inguruko informazioa bilatzen du autonomia osoz (edozein kultura eta garaitakoak, eta euskal gizartekoak zein kanpokoak), eta hainbat iturri erabiltzen ditu era egokian. |

| | | |
|---|--|---|
| <p>- Ikastegiak antolatutako ondarearen ezagutza eta balorazioari buruzko jardueretan parte hartzen du gidaritzapean.</p> | <p>- Ondare kulturala zabaltzeko, talde-jarduerak planifikatzen parte hartzen du, eta ondarea ezagutzeko interesa adierazten du.</p> | <p>- Ondare kulturala ezagutarazteko jarduerak prestatzen eta egiten aktiboki parte hartzen du, egin diren beste batzuekin loturak ezarriz eta proposamen berriak eginez.</p> |
| <p>- Produktu kultural eta artistikoetara jotzen du gidaritzapean eta hainbat baliabide erabilia: argitalpenak, Internet...</p> | <p>- Bere gustuari, adinari... egokitutako hautaketa-irizpideak aplikatzen ditu, hedatze-baliabideetan eduki kultural eta artistikoak jasotzeko eskaintzen zaizkion argibideak jarraituta.</p> | <p>- Eduki kultural eta artistikoak hautatu eta kontsumitzeko irizpideak aplikatzen ditu autonomiaz.</p> |
| <p>- Hala esaten zaionean, ingurune atsegina lortzeko arauak aplikatzen ditu; adibidez, ikastegian soinuaren bolumena mugatzea, propaganda eta kartelak jartzea... betiere beste pertsonak ez molestatzeko.</p> | <p>- Pertsonen aberastasunari eta osasunaren zainketari zuzendutako musika entzuteko, mugitzeko... baldintza egokiak baloratzen ditu ia beti.</p> | <p>- Entzumen- eta ikusmen-baldintzek duten garrantziaz jabetzen da; batez ere, ingurumen atsegina sortzeko, eta eguneroko bizitzan bere osasunari kalterik ez egiteko.</p> |
| <p>- Jabetza intelektuala objektu artistiko edo kulturalak edukitzea dela ulertzen du (liburuak, diskoak...).</p> | <p>- Material kulturalen legez kontrako kopiek kaltea eragiten dutela daki, baina produktu horiek zabaltzen lan egiten duten enpresei galera ekonomikoak eragiten dizkiela uste du soilik.</p> | <p>- Pirateriaren eta bereizi gabeko kopien aurka babesten ez diren sortzaile artistiko eta kulturek jasan ditzaketen kalteak ulertzen ditu.</p> |

2. dimentsioa: KULTURA ETA ARTEA SORTZEA

4. Produktu artistikoak sortzea emozioak, bizipenak eta ideiak adierazteko, irudikatzeko eta komunikatzeko modu gisa.

- Inguruneko galderei, ardurei, ideiei... erantzuteko lan artistikoak sortzen ditu.
- Ideiak birsortzen ditu, besteen ekoizpenak eraldatzen ditu, hainbat produktu artistikoren bitartez soluzio bat baino gehiago proposatzen ditu eta egoeren inguruan galderak egiten ditu.
- Proposamen berriak ikertzen ditu, bere sorkuntzetan estereotipo eta konbentzionalismoak gainditzen ditu, eta malgutasunezko, elkartasunezko, interesezko eta errespetuzko jarrera izaten du.
- Sorkuntza-prozesuetan IKTek eskaintzen dituzten aukerei arreta berezia jartzen die, bere erantzunak sortzerakoan erregistro-sorta zabaltzeko.
- Hizkera artistikoen baliabideek eskaintzen dituzten aukerak ulertu eta bereizten ditu (irudia, testua, soinua, mugimendua...), eta bere sorkuntzetan probatu egiten ditu aukera horiek.
- Era arrazoituan planifikatzen du bere lan-prozesua, adierazpen- eta komunikazio-beharren arabera.

- g) Ekoizpen artistikoan jarraitutako ekoizpen-prozesua arrazoituta argumentatzen du.
- h) Bere lan-prozesua baloratzen du, eta emaitza hobea lortzeko egin beharreko aldaketak egiten ditu.

| Hasierako maila | Erdi-maila | Maila aurreratua |
|---|--|--|
| <ul style="list-style-type: none"> - Era oinarrizkoan irudikatzen ditu ideiak, behaketak, bizipenak... ekoizpen artistikoen bitartez. - Beste pertsonen ekoizpenak errepikatzen ditu (artistak edo gelakideak) adierazpen osagarri originalen bat txertatuta. - Bere ekoizpenetan aldaketak txertatzeko esfortzua egiten du. - Ekoizpenetan baliabide teknologiko batzuk erabiltzen ditu sinpleki. - Baliabideen aukerak antzeman (irudia, testua, soinua...) eta horiek hizkera artistikoei eskaintzen dizkieten aukerak aztertzen ditu. - Ekoizpen artistikoak lantzeko proposatzen zaion lan-prozesuaren planifikazioa ulertzen du. - Lan-prozesuarekin lotutako galderei behar bezala erantzuten die. - Lan-prozesuak laguntzarekin aztertzen ditu, eta aldaketak egitea onartzen du. | <ul style="list-style-type: none"> - Ekoizpen artistikoak sortzen ditu adierazteko eta/edo komunikatzeko asmoarekin. - Ideiak, bizipenak... irudikatzen ditu, horretarako ekoizpenetan ekarpen personalak txertatuta. - Bere lan artistikoetan finkatutako ideiak gainditzen ditu. - Baliabide teknologikoak lan-prozesuan nola erabili daitezkeen ikertzen du. - Lan artistikoetan hizkera desberdinak nahasteko aukerak saiatzen ditu (komikiak, aurkezpenak...). - Lan-prozesurako ezarritako faseak hasieratik bukaerara mantentzen ditu. - Jarraitu duen lan-prozesua ulertzeko moduan azaltzen du. - Lan-prozesuan akatsak antzematen ditu, eta haiek zuzentzen saiatzen da. | <ul style="list-style-type: none"> - Ekoizpen artistikoetan, asmoak esplizituki azaltzen eta komunikatzen ditu. - Irudimena, bilaketa, manipulazioa... erabiltzen ditu ekoizpenetan bere zein besteen ideiak aplikatzeko. - Lan artistikoetan soluzio bat baino gehiago saiatu eta proposatzen ditu. - Eskura dituen baliabide teknologikoek eskaintzen dituzten aukerak erabiltzen ditu bere ekoizpenetan. - Ekoizpen artistiko sinpleetan hizkera artistiko bat baino gehiago txertatzen ditu. - Lan-prozesu artistikoa era koherentean antolatzen du, eta esfortzua egiten du faseak mantentzeko. - Lan artistikoak sortzeko jarraitu duen prozesuan emandako urratsak koherentzia osoz arrazoitzen ditu. - Lan-prozesuan aldaketak egiten ditu, hura hobetzen saiatzeko. |

5. Hizkera artistikoen inguruko ezagutza nahikoa izatea, adierazteko eta komunikatzeko baliabide gisa erabili ahal izateko, eta obra artistiko eta kulturaletan identifikatu ahal izateko.

- Hizkera artistikoen oinarriko elementuak ezagutzen ditu, eta ekoizpenetan behar bezala erabiltzen ditu.
- Hizkera artistikoek eskaintzen dituzten teknikekin, baliabideekin eta konbentzioekin esperimendatzen du, soluzioak bilatuta eta bere ideiei, sentimenduei, emozioei... erantzuna emango dieten estrategiak aplikatuta.
- Ikuspuntu tekniko eta formaletik egokiak diren erantzunak ematen dizkie ekoizpen artistikoei.
- Ekoizpen artistikoei zentzua emateko erabili dituen tekniken, tresnen eta materialen hautaketa egoki arrazoitzen du.
- Planteatutako arazo artistikoari erantzuna emateko egokiak diren euskarriak, materialak, tresnak eta prozedurak egoki eta sormenez erabiltzen ditu.
- Ekoizpen artistiko globaletan (musikaletan, *performance*etan, antzerkian, instalazioetan...) agertzen diren adierazpen moduen artean sortzen diren elkarreraginak hautematen ditu, eta komunikazioari egiten dioten ekarpena baloratzen du.

| Hasierako maila | Erdi-maila | Maila aurreratua |
|--|---|--|
| <p>- Hizkera artistikoen oinarriko elementuen erabileraren inguruko interesa adierazten du.</p> <p>- Hizkera artistikoen teknikek, baliabideek eta konbentzioek eskaintzen dituzten aukerak aztertzen ditu.</p> <p>- Sorkuntza-proposamenei soluzioak emateko materialak, tresnak, euskarriak, ahotsa... manipulatzeko ditu.</p> <p>- Obra artistikoetan eta produktu artistiko zein kulturaletan hizkera bat baino gehiago erabiltzen direla hautematen du.</p> | <p>- Hizkera artistikoen oinarriko elementuak erabiltzen ditu, horiek bere erantzunei egokituta.</p> <p>- Hizkera artistikoen oinarriko teknika eta baliabideak saiatzen ditu bere ekoizpenetan.</p> <p>- Oinarriko teknika eta prozedurak erabilia, adierazteko eta komunikatzeko asmoak garatzen ditu.</p> <p>- Ekoizpen artistikoetan teknikak, baliabideak eta konbentzioak nola erabiltzen dituen sinpleki azaltzen du.</p> <p>- Materialekin, tresnekin, euskarriekin, ahotsarekin, gorputzarekin... esperimendatzen du, ekoizpenetan erantzun egokia eman nahian.</p> <p>- Instalazioak, musikalak... bezalako praktika artistikoetan hizkera artistiko bat baino gehiago identifikatzen ditu.</p> | <p>- Hizkera artistikoen oinarriko teknika, baliabide eta konbentzioak erabiltzen ditu, eta bere ekoizpenetan txertatzen.</p> <p>- Hizkera artistikoen baliabideen, tekniken eta konbentzioen soluzioak aztertzen ditu, eta bere ekoizpenetan txertatzen.</p> <p>- Erantzun artistikoak ematean, hizkera artistikoak oinarriko mailan erabiltzen ditu.</p> <p>- Ekoizpen artistikoetan bilatzen dituen erantzunen arabera, teknika eta baliabideen hautaketa arrazoitzen du.</p> <p>- Adierazpen- eta komunikazio-helburuekin, materialak, tresnak, euskarriak, ahotsa, gorputza... erabiltzen ditu.</p> <p>- Obra artistikoetan eta produktu kulturaletan erabilitako hizkera artistikoen artean elkarreraginak sortzen direla hautematen du.</p> |

6. Sormen artistikoko prozesuetan beste pertsonekin elkarlanean jardutearen garrantzia baloratzea.

- Proposamen artistikoak sortzerakoan talde-lanaren eta taldean egindako proiektuen garrantziaz jabetzen da.
- Lan partekatuaren erantzukizuna hartzen du, lankideen ekarpenak errespetatuta.
- Taldeko proiektu artistikoan koherentziaz parte hartzen du, hasierako ideiatik hasi eta proiektua bukatu arte.
- Taldean obra konplexuak ekoiztu eta planifikatzen ditu, adierazpen eta komunikazio artistikoko hizkera bat baino gehiago erabilita.
- Proiektu artistikoak planifikatu eta ekoizteko talde-lanaren dinamika ebaluatzen du.

| Hasierako maila | Erdi-maila | Maila aurreratua |
|---|---|--|
| <ul style="list-style-type: none"> - Lan artistiko batzuetan ezaugarri kolektiboak egon daitezkeela antzematen du. - Ematen zaion lanaren ardura hartzen du, eta taldekideei dagozkien ardurak ere kontuan izaten ditu. - Taldeko lan artistikoa garatzen laguntzen du, eman zaizkion argibideak jarraituta. - Hizkera artistiko bat baino gehiago darabilten talde jarduerak lantzerakoan interesez parte hartzen du, eman zaizkion ereduak jarraituta. - Taldeak egindako lana berrikusten du, eta hobetu daitezkeen alderdiak identifikatzen ditu, beti nola egin ez baldin badaki ere. | <ul style="list-style-type: none"> - Ematen zaizkion argibideen bitartez lan artistikoetan talde-lana dagoela ulertzen du. - Eman zaion lana taldekideekin era koordinatuan betetzen du. - Partekatutako proiektu artistikoak antolatzen eta lantzen parte hartzen du, proposatzen zaizkion zereginak beteta. - Lan artistikoak taldean egiterakoan urrats jakin batzuk jarraitzen ditu eta irudiak, soinuak, hitzak, mugimendua... sinpleki erabiltzen ditu. - Talde-lanean hobetu daitezkeen alderdiak identifikatu, eta agerian uzten ditu. | <ul style="list-style-type: none"> - Lana taldean eginda emaitza hobekak lortzen direla onartzen du. - Proiektu artistikoarekiko interesa agertzen du, eta taldekideen lana errespetatzen du, horiek neskak ala mutilak izan. - Taldekideekin aktiboki egiten du lan proiektua garatzeko, eta proposamenak egiten ditu. - Hizkera artistiko bat baino gehiago darabilten talde jarduerak lantzerakoan irudimena, originaltasuna, soinuak, mugimenduak, testuak, irudiak... erabiltzen ditu. - Proiektu artistikoaren alderdi batzuk hobetzeko proposamenak egiten ditu. |

4.2. Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 2. mailako azpi-kompetentzia bakoitzaren adierazleak eta mailaketa.

Hasierako mailan dauden ikasleak gai dira era askotako mezuak sortzeko hainbat euskarri, prozedura eta teknika kontzienteki erabilia, betiere bere adierazpen- eta komunikazio-interesen arabera. Halaber, adierazpen eta ekoizpen artistikoetan erabilitako hizkerak identifika ditzakete, mezuaren asmoa betetzeko duten garrantzia baloratuta. Bestalde, maila honetan daude baita ere hizkera artistikoen teknikak, baliabideak eta konbentzioak manipulatzeko gai diren ikasleak, aurkezten zaizkion arazo estetikoek soluzioak emanda.

Maila honetako ikasleek lanerako metodoa planifikatu eta garatzen dute proposamen zehatz baten aurrean daudenean, fase bakoitzaren baliotasuna eta egokitasuna arrazoituta.

Gainera, ekoizpen artistiko eta kulturalen esanahiak kritikotasunez interpretatzeko gai dira, eta lan hori sortu den testuingurua eta asmoa kontuan hartzen dituzte. Ikasleek artearen proposamen estetikoetan aldaketak identifika ditzakete, baita funtzio eta erabileretan ere, eta historian eta kulturen aldatzen ari diren zerbait bezala interpretatzen ditu. Horrez gain, adierazpen kultural eta artistikoetan eta manifestazioetan dagoen aniztasuna ezagutzen dute, eta aberastasun-faktore gisa interpretatzen dute, hain zuzen ere.

Erdi-mailan dauden ikasleek, hasierako mailako gaitasunak izateaz gainera, adierazteko eta komunikatzeko asmoari ondoen egokitzen zaizkion hizkera artistikoen prozedura eta baliabideak aukeratzen ditu, ekoizpen artistikoak sortzerakoan. Gainera, bilaketaren aldeko eta baliabide eta konbentzioak artikulatzeko jarrera du, ikuspuntu tekniko eta formaletik erantzun on bat eman ahal izateko.

Maila honetako ikasleek, bestalde, proposamen artistikoak sortu eta ekoizteko prozesuetan alternatibak bila ditzakete, eta badakite baliabideak ondo manipulaturik mezuaren edo emaitzaren esanahia alda daitekeela. Maila honetan daude, baita ere, egin behar dituzten proiektuen inguruan hausnartzeko gaitasuna duten ikasleak, eta proiektu horiek antolatzen zein garatzen egoki parte hartzen dutenak.

Adierazpen artistiko eta kulturek kulturen ondarea osatzen dutela ulertu eta baloratzen dute, eta obra zein adierazpen artistikoetan agertzen diren faktore sozial eta kulturelak identifikatzen ditu. Halaber, ekoizpenetan ager daitezkeen hizkera desberdinen arteko elkarreraginak ere hautematen dituzte, eta komunikazioari mesede egiten diotela eta sorkuntza artistiko edo kultureala aberasten dutela ulertzen du.

Maila aurreratuan dauden ikasleak, hasierako eta erdi-mailan aipatutako gaitasunez gain, hizkera artistikoen baliabide-sorta handia erabilia ekoizpen artistiko konplexuak sortzeko gai dira. Hizkera artistikoen materialak, tresnak eta prozedurak egoki erabiltzeko gai ere badira.

Maila honetako ikasleek inguruan eta ekoizpen artistikoetan bilatzen dituzte beren adierazteko eta komunikatzeko asmoekin lotutako erreferenteak nahiz ideiak, eta besteek egindako ideia eta ekoizpenak eraldatzen dituzte irudimena, bilaketa eta sormenezko manipulazioa erabilita. Halaber, ekoizpen artistikoetan agertzen diren arazoei alternatiba pertsonalak proposa diezazkiekete, sormenaren eta hausnarketaren bitartez.

Maila honetako ikasleek bete behar duten proiektuaren asmoa aintzat hartzen dute, faseak antolatzen eta jarduerak betetzen parte hartzen dute, eta, gainera, ezarritako helburuen arabera norberak zein besteek egindako ekarpenak baloratzen dituzte. Horrez gain, artea adierazteko moduen ezaugarriak identifikatu eta alderatzeko gai dira, eta kultura guztien ondarea osatzen dutela ulertzen dute.

Halaber, obra eta adierazpen artistiko zein kulturalak etengabe aldatzen ari diren produktuak direla ulertzen dute, kulturen arteko eta pertsona zein gizarteen arteko elkarreraginak beti hor egon direla kontuan izanda.

Azkenik, maila honetan ikasleak gai dira ekoizpenetan hizkera artistiko bat baino gehiago txertatzeko, adierazpen- eta komunikazio-beharren arabera, betiere.

1. dimentsioa: KULTURA ETA ARTEA ULERTZEA

1. Adierazpen eta ekoizpen artistikoak identifikatu eta baloratzea, sortu diren garai eta testuinguru kulturalaren barruan.

- Hainbat adierazpen eta produktu kultural eta artistiko identifikatzen ditu «goi-kultura» gisa ezagutzen dugun horretan zein «herri-kulturaren» esparruan; baita eguneroko bizitzan ikus daitezkeenak ere.
- Ekoizpen artistiko eta kulturalen inguruko faktore historiko eta sozialak aztertu eta bereizten ditu, eta berdin lanok sortu diren testuinguruaren ezaugarriekin ere.
- Euskal Herriko artista batzuk –gizon zein emakume– eta obra eta adierazpen kulturalak ezagutzen ditu, hainbat esparru eta adierazpen formatan; gainera, horietako bakoitza dagokion garai historiko eta testuinguru sozialarekin lotzeko gai da.
- Arteen estilo eta joeren ezaugarriak ezagutzen ditu, eta horiek momentu zein ikuspegi estetiko zehatzen osagarri gisa interpretatzeko gai da.
- Adierazpen kulturalen inguruko iritziak adierazteko, pertzepzio- eta komunikazio-ahalmenak erabiltzen ditu, eta besteen iritziak entzuteko eta barneratzeko jarrera egokia du.
- Kultura-aniztasuna eta adierazpen- eta ulermen-era bat baino gehiagoren baterako existentzia baloratzen ditu, eta aberastasun pertsonalari eta bizikidetzari laguntzen dioten motor gisa ulertzen ditu. Bestalde, baztertu egiten du generoan, gizartean edo arrazan oinarritutako diskriminazio oro.
- Bere gustuekin zerikusirik ez duten adierazpen kultural eta artistikoak errespetatzen ditu.
- Hizkera artistikoen presentzia eta elkarrekintza ezagutzen du (bisuala, musikala, plastikoa, eszenikoa eta literarioa), edozein ekoizpen kulturaletan dela ere (zinema, opera, antzerkia, *performanceak*...).
- Era askotako adierazpen kultural eta artistikoak sortu, bildu, banatu eta ikusterakoan informazioaren eta komunikazioaren teknologiek betetzen duten funtzioa ezagutzen du.

| Hasierako maila | Erdi-maila | Maila aurreratua |
|--|--|---|
| - Eguneroko bizitzak formatu eta mota askotako adierazpen kultural eta artistikoak identifikatzen ditu. | - Ingurunean eta eguneroko bizitzan adierazpen estetikoak identifikatzen ditu (objektuetan, arropan, kontsumo-produktuetan, zineman...) eta «goi-kulturako» adierazpen batzuk ere bai. | - Adierazpen eta produktu kultural eta artistiko batzuetan goi-kultura eta herri-kultura direlakoan ezaugarri bereizgarriak identifikatzen ditu. |
| - Ekoizpen artistikoak eta adierazpen kulturalak ulertu eta baloratzen ditu, baina testuingurutik kanpo. | - Ingurunean adierazpen kultural eta artistiko batzuk haien testuinguruarekin lotzen ditu: funtzioak, erabilerak, hartzailak... | - Ekoizpen artistiko eta kulturalen adibide zehatzak sortu ziren testuinguruarekin lotzen ditu, eta testuinguruak aldatzen direnean lanok ere aldatu egiten direla ulertzen du. |

| | | |
|--|--|---|
| <p>- Oro har, euskal kulturako artista eta adierazpen artistiko batzuk ezagutzen ditu; batez ere, gertueneko ingurunean.</p> <p>- Inguruneko artelan eta adierazpen artistikoetan garai jakin bateko ezaugarriak hautematen ditu.</p> <p>- Behaketa urratsak eta obra zein adierazpen kultural eta artistikoak ulertzeko jarraibideak kontuan hartzen ditu, eta horien inguruko iritzia ematen du oinarritzko balorazio subjektiboak erabilita.</p> <p>- Eguneroko bizitzan (bizikidetzaren eremuetan, hedabideetan...) ezberdinak diren kulturetako elementuen presentzia antzematen du.</p> <p>- Gustu estetikoak adierazteko era bat baino gehiago daudela onartzen du.</p> <p>- Adierazpen artistiko edo kultural bakoitza isolaturik ulertzen du, nahiz eta horietan agertzen diren hizkera artistikoak hautematen dituen.</p> <p>- IKTek sorkuntza artistikoak entzun, ikusi, bildu, kopiatu edo transmititzeko duten garrantzia ulertzen du (musika, bideoak...).</p> | <p>- Euskal kulturako adierazpen ohikoena aipatzen ditu, tradizionalen eta gaur egungoak bereizita.</p> <p>- Sorkuntza artistiko batzuk garai edo estilo baten barruan sailkatzen ditu, oinarritzko irizpide estilistikoak aplikatuta.</p> <p>- Obra eta adierazpen kultural zein artistikoak ulertzeko behaketa eta irudimena erabiltzen ditu, eta iritzia emateko era oinarritzko eta subjektiboz baliatzen da, besteen iritzia ere aintzat hartuta.</p> <p>- Beste adierazpen-modu batzuekin bere kultura aberasteko aukerak ikusten ditu.</p> <p>- Bere gustuekin bat ez datozen edo ulertzen ez dituen adierazpen estetiko, artistiko edo kulturalak errespetatzen ditu.</p> <p>- Ohiko adierazpen kulturaletan hizkera artistiko bat baino gehiago identifikatzen ditu; adibidez, zineman, dantzan... eta haien arteko elkarreaginak hautematen du.</p> <p>- Ekoizpen artistiko edo egungo ikuskizun batzuetan IKTen erabilera identifikatzen du (musikalak, zinema...).</p> | <p>- Euskal kultura eremu zabalagoan ulertzen du: adierazpen-esparruak, kulturako pertsona ezagunak (artistak, autoreak...) eta obra eta adierazpen kulturalak.</p> <p>- Artelan batzuetan estiloaren bilakaera edo aldaketa antzematen du, eta sortu zen garaiarekin lotzen du.</p> <p>- Nolabaiteko konplexutasuna duten adierazpen kulturalak eta artelanak ulertu eta interpretatzeko behaketa eta irudimena erabiltzen ditu, eta besteen ekarpenekin balio pertsonalak aberasten ditu.</p> <p>- Bere kulturarekiko ezberdinak diren kulturen adierazpenen inguruko interesa agertzen du, eta haietan hainbat ezaugarri eta balio hautematen ditu (originaltasuna, adierazkortasuna, elementu erakargarri edo harrigarriak...).</p> <p>- Ondo ulertzen ez dituen edo erakartzen ez duten adierazpen kultural edo artistikoenganako jarrera irekia du.</p> <p>- Ikuskizun bateko hizkera artistiko desberdinetatik datozen elementuen nahasketa aztertzen du, esate baterako, zineman, antzerkian, dantzan...</p> <p>- Ekoizpen artistiko edo kulturalerako IKTen erabilera ulertzen eta baloratzen du, eta eskaintzen dituzten aukeren inguruan interesa agertzen du.</p> |
|--|--|---|

2. Arteen eta kulturaren produktuei pertsonak eta gizarteak eman dizkieten erabilera eta funtzio sozialak interpretatzea.

- Hainbat garai historikotako edo kultura desberdinetako obra eta adierazpen artistiko zein kulturaletan ideiak, sentimenduak, emozioak eta abar ulertzeko era bat baino gehiago hautematen ditu.
- Denbora eta kultura askotarikoetan, artearen erabilera, funtzio eta esanahiak ulertzen ditu.
- Hainbat ekoizpen eta adierazpen artistiko eta kulturaletan nazioarteko ezaugarriak eta faktore ideologiko, politiko, erlijioso eta generokoak hauteman eta identifikatzen ditu, lan horien jatorrian daudenak edo bertan azaltzen zaizkigunak.
- Adierazpen kultural eta artistiko zehatz batzuk pentsatzeko erekin, joera estetikoekin eta modekin lotzen ditu, egungo gizartean batez ere.
- Adierazpen-askatasuna baloratzen du, pertsonen oinarritzko eskubideak errespetatuz obra artistikoak sortu eta irudikatzeko.

| Hasierako maila | Erdi-maila | Maila aurreratua |
|--|---|--|
| <ul style="list-style-type: none"> - Erakusten zaizkion obretan, ideia, sentimendu edo emozio bera adierazteko (poza, beldurra, naturaren ezaugarriak, denboraren joana...) modu desberdinak hautematen ditu. - Inguruneko adierazpen artistiko edo kultural batzuen (bertsolariak, jazz-jaialdiak, Zinemaldia) asmoa adierazten du. - Hainbat obra bisual zein plastiko, musikal edo literariotako mezurik nabarmenenaren esanahia identifikatzen du; adibidez, emakumearen irudikapena artean, ama gisa, langile gisa, mito gisa... | <ul style="list-style-type: none"> - Garai historiko eta kultura desberdinetako obretan, ideia, sentimendu edo emozio bat adierazteko modu ezberdinen erakusle diren ezaugarriak deskribatzen ditu. - Hainbat testuingurutako adierazpen artistiko eta kultural batzuen erabilera eta funtzioak deskribatzen ditu. - Emakumeek hainbat testuinguru artistikotan duten funtzioa ezagutu eta baloratzen du. - Ekoizpen artistiko eta kulturalen esanahia eta asmoa identifikatzen ditu, ematen zaizkion ereduak oinarri hartuta (antzerki-obrak, eraikin esanguratsuak, publizitate-iragarkiak, kantuak, bideo-jokoak...). - Artearen eta kulturaren historian emakumeek sortzaile eta interprete gisa bete ez duten funtzioa hautematen du. | <ul style="list-style-type: none"> - Garai eta/edo kultura desberdinetako obretan ideiak, sentimenduak eta emozioak adierazteko moduen arteko loturak ezartzen ditu. - Adierazpen artistiko eta kultural batzuk testuinguruarekin lotuta duten esanahiak argudiatzen ditu. - Emakume artista batzuen sorkuntzak eta interpretazioak aztertzen ditu, eta euren ekarpenak baloratzen. - Hainbat adierazpen artistiko eta kultural batzuen asmoa arrazoi ideologiko eta sozialekin lotzen du, artistaren aldetik zein ekoizpen hori babesten duenaren aldetik ere. - Adierazpen kultural eta artistikoetan emakumeen presentzia hautematen du, eta haien funtzioa identifikatzen (autoreak, interpreteak, artisauak...). |

| | | |
|---|--|--|
| <p>- Adierazpen kultural eta artistikoen eta horiek sortzen diren gizartearen edo eragiten dien gizartearen arteko harremana hautematen du (bere identitateari eraginda: markak, arropa... norbera denaren eta pentsatzen duenaren isla).</p> | <p>- Hainbat adierazpen estetikotan, alderdi batzuk identifikatzen ditu (janzteko eran edo egungo musika estiloetan...) eta haiek sortu zituzten mugimendu kultural edo artistikoekin lotzen ditu.</p> | <p>- Egun egiten diren mota askotako adierazpen estetiko eta kulturalak sailkatzen ditu, eta sailkapen-urrats eta -eredu horiek beste adierazpen kultural eta artistiko batzuei aplikatzen dizkie.</p> |
| <p>- Adierazpen-askatasuna sorkuntza artistiko eta kulturalaren oinarrian dagoela ulertzen du, eta, gainera, besteen eskubideak errespetatu behar dituela jabetzen da.</p> | <p>- Proposatutako egoera batzuetan artistaren askatasunak izan dituen muga edo zailtasunak interpretatzen ditu, baita iritzi publikoan izandako ondorioak ere.</p> | <p>- Obra edo ekoizpenen bat zentsuratzea eragin duen gatazkaren bat eta horrek gizarterako duen garrantzia aztertzen ditu, eta adierazpen-askatasunaren alde agertzen da.</p> |

3. Herritarren eta kulturen oinarri gisa ondare artistiko eta kulturala osatzen duten elementuak estimatzea, eta haiek kontserbatzen eta berritzen laguntzea.

- a) Ekintza artistikoak eta kultura adierazteko moduak denon ondasunaren eta norberaren identitate kulturalaren parte gisa identifikatzen ditu.
- b) Euskal kulturaren ondarea osatzen duten adierazpen kulturalak eta obra artistikoak baloratzen ditu, baita euskal gizartean daukagun aniztasun kulturala ere, pertsonentzat aberasgarri delako eta denon arteko elkarbizitzari ekarpena egiten diolako.
- c) Ondare kulturalari buruz ikertzen du –hainbat espazio- eta denbora-mailatan– eta adierazpen artistiko eta kulturalen inguruko informazioa bilatu eta antolatzen du.
- d) Inguruko elkarte, industria eta zerbitzu kulturelek eskaintzen dituzten ondarea sustatzeko jarduerak ezagutzen ditu eta haietan parte hartzen du, hura babestu, baloratu eta berreskuratzeko laguntza emanaz.
- e) Era askotako produktu kultural eta artistikoetara jotzeko hautaketa irizpideak sortu eta aplikatzen ditu, bereziki informazioaren eta komunikazioaren teknologien bitartez banatzen diren produktuen kasuan.
- f) Ezarritako eredu kultural homogeneousatzaileen aurrean, jarrera kritikoa du; bereziki, hedabide jakin batzuen bitartez edo kontsumo jendetsuaren bidez egiten denean.
- g) Ikusmenerako eta entzumenerako atsegina eta osasungarria den ingurunea izatearen garrantzia baloratzen du.
- h) Jabetza intelektuala eta produktu artistiko edo kultural baten sortzailearen eskubideak errespetatzen ditu.

| Hasierako maila | Erdi-maila | Maila aurreratua |
|---|--|---|
| <p>- Ondare kulturala osatzen duten ekintza eta adierazpen batzuk identifikatzen ditu, era isolatu eta mugatuan, kulturaren antzinako adierazpenekin lotuta.</p> <p>- Gure garaira heldu diren obra eta adierazpen berezien multzo mugatua bakarrik ezagutzen du euskal kulturaren barruan, eta beste kultura edo joera kulturaletatik bereizita ikusten ditu.</p> <p>- Beste kulturetako adierazpen kultural batzuk hautematen ditu, baina identifikatu gabe.</p> <p>- Jarduera eta lanak egiteko informazioa bilatzen du, ondare kulturalaren – euskalduna zein unibertsala-elementuak ezagutzeko helburuarekin, horretarako ematen zaizkion urrats eta ereduak jarraituta.</p> <p>- Ondare kulturalaren ezagutza eta/edo babesari buruzko proiektu gidatuetan parte hartzen du, ikastegiak antolatuta, eta programatutako talde-lan jardueretan parte hartzen du.</p> <p>- Produktu eta jarduera kultural zein artistikoei buruzko informazioa lortzeko kanal-kopuru mugatua erabiltzen du, eta ez ditu beti irizpide pertsonalak erabiltzen haiek hautatzeko.</p> | <p>- Ondarea funtsean kulturaren adierazpen «klasikoe» edo «akademikoe» osatutako zerbait dela pentsatzen du, adierazpen guztietan ere: musikaletan, literarioetan, artistikoetan...</p> <p>- Euskal ondare kulturalean hainbat obra eta adierazpen ezagutzen ditu, lekuaren arabera ezberdinak direnak eta denboran zehar bilakaeraren bat izan dutenak.</p> <p>- Gainera, beste kulturetako adierazpen propioak hautematen ditu, sistematizatu gabe, eta haiek ezagutzeko zein haietan parte hartzeko interesa agertzen du.</p> <p>- Ondareari buruz eskuratzen duen informazioa automatikoki antolatzen du, eta era ordenatuan aurkezten, banakako lanetan zein talde-lanetan.</p> <p>- Erakunde zein elkarte pribatuek antolatutako jarduera kultural batzuetan parte hartzen du: bertsolaritza, musika, dantza, euskal kirolak, antzerkia...</p> <p>- Ekitaldi kultural eta artistikoei buruzko informazioa bilatzen daki, baina haiek baloratu eta interesgarri edo egoki diren jakiteko irizpideak erabiltzea kostatzen zaio.</p> | <p>- Ondare kulturala zentzu zabal eta askotarikoan ulertzen du, hura osatzen duten ekintzen tipologiari eta toki- zein denbora-jatorriari dagokienez.</p> <p>- Euskal ondare kulturalean beste kulturekin lotutako obra eta adierazpenak identifikatzen ditu, baita euskal kulturak ondare unibertsalari egin dizkion ekarpenak ere.</p> <p>- Bestalde, euskal gizartearen kultura-aniztasuna baloratzen du, eta bertako adierazpen kulturalen zein beste kulturetatik Euskal Herrian txertatu direnen ezagutza zabaltzeko jakin-mina sentitzen du.</p> <p>- Ondare kulturalaren hainbat alderdiri buruzko azalpenak lantzen ditu, alderaketak eginda, ondorioak aterata...</p> <p>- Ondare kulturala ezagutu eta/edo babesteko jardueretan parte hartzen du denbora librean, familian zein lagunekin.</p> <p>- Badaki ekitaldi eta produktu kultural zein artistikoei buruzko informazioa non eta nola bilatu, gida espezifikoetan zein papereko edo Interneteko hedabideetan, eta bere gustuetan eta esperientzian oinarritutako autonomiaz baliatzen da hautaketak egiterakoan.</p> |

| | | |
|---|---|--|
| <p>- Ezarritako eredu kulturaltzat edo homogeneousatzailetzat jo daitezkeen modak, musika, arropa, argitalpenak... identifikatzen ditu.</p> <p>- Entzumen- eta ikusmen-baldintzek duten garrantziaz jabetzen da, ingurumen atsegina sortzeko eta eguneroko bizitzan bere osasunari kalterik ez egiteko.</p> <p>- Jabetza intelektualari eta egile eskubideei buruzko ideia mugatuak ditu, sarreren salmentari, liburuei, musikari... buruz.</p> | <p>- Esperientzia pertsonaleko esparru batzuetan (entzuten duena, jantzen duena, ikusten duena, kontsumitzen duena...) moden eragina hautematen du, baina ez du fenomeno hori haren arrazoi posibleekin lotzen.</p> <p>- Ingurune atsegina eta osasungarria izateko beharrezkoak diren ikusmen- eta entzumen-baldintzak baloratzen ditu, eta horiek betetzen ez diren egoerez jabetzen da.</p> <p>- Produktu kulturalak legez kontra kopiatzeak sortzaileei eragiten dizkien kalteez jabetzen da, baina ez da kontsekuente jabetza intelektualeko eskubideen defentsarekin.</p> | <p>- Egungo gizartea estandarizatzen duten adierazpen kultural batzuetan interes komertziala dagoela hautematen du.</p> <p>- Inguruneko ikusmena eta entzumena hobetzeko esfortzua egiten du, eta neurri zuzentzaileak hartzen ditu, bere gaitasunen barruan.</p> <p>- Artea eta kultura ekoizteko lana baloratzen du eta lan horren eskubideak errespetatzen ditu, produktuen legez kontrako kopiak erostea saihestuta eta eskubide horiek behar bezala erabilia.</p> |
|---|---|--|

2. dimentsioa: KULTURA ETA ARTEA SORTZEA

4. Produktu artistikoak sortzea emozioak, bizipenak eta ideiak adierazteko, irudikatzeko eta komunikatzeko modu gisa.

- Inguruneko galderei, ardurei, ideiei... erantzuteko lan artistikoak sortzen ditu.
- Ideiak birsortzen ditu, besteen ekoizpenak eraldatzen ditu, hainbat produktu artistikoen bitartez soluzio bat baino gehiago proposatzen ditu eta egoeren inguruan galderak egiten ditu.
- Proposamen berriak ikertzen ditu, bere sorkuntzetan estereotipo eta konbentzionalismoak gainditzen ditu eta malgutasuneko, elkartasuneko, intereseko eta errespetuzko jarrerak garatzen ditu.
- Sorkuntza-prozesuetan IKTek eskaintzen dituzten aukerei arreta berezia jartzen die, bere erantzunak sortzerakoan erregistro-sorta zabaltzeko.
- Hizkera artistikoen baliabideek eskaintzen dituzten aukerak ulertu eta bereizten ditu (irudia, testua, soinua, mugimendua...), eta aukera horiek txertatzen ditu bere sorkuntzetan.
- Era arrazoituan planifikatzen du bere lan-prozesua, adierazpen- eta komunikazio-beharren arabera.
- Ekoizpen artistikoan jarraitutako ekoizpen-prozesua arrazoituta argumentatzen du.
- Bere lan-prozesua baloratu eta emaitza hobea lortzeko egin beharreko aldaketak egiten ditu.

| Hasierako maila | Erdi-maila | Maila aurreratua |
|---|--|---|
| <ul style="list-style-type: none"> - Bere adierazpen- eta komunikazio-xedeekin bat datozen erreferenteak eta ideiak bilatzen ditu ingurunean eta ekoizpen artistikoetan. - Bere ekoizpenak egiteko irudiak, soinuk, testuak... bilatu eta berrerabiltzen ditu. - Originaltasunez eta irudimenez hitz egiten du, eta adierazpen- eta komunikazio-era guztien inguruko jakin-mina eta errespetua du. - Bere ekoizpenetan, kontzienteki erabiltzen ditu baliabide teknologikoak. - Hainbat hizkera artistikotako baliabideak txertatzen ditu ekoizpenetan. - Proposamen artistiko zehatz baten aurrean lan-prozesu bat sortzen du. - Lan artistikoak egiteko prozesuaren ezaugarriak ordenaturik deskribatu eta justifikatzen ditu. - Prozesua berrikustea eta baloratzea kontuan izaten du beti, horretarako ematen zaizkion argibideak jarraituta. | <ul style="list-style-type: none"> - Eguneroko inguruneko galdera eta arazoan aurrean erantzun artistiko arrazoituak ematen ditu. - Besteen ideiak bilatu eta berrerabiltzen ditu, bere sormen-beharretara egokituta. - Ideia finkatuak gainditzen ditu, eta proposamen berriak ikertzen ditu, bere zein besteen lan artistikoetan. - Teknlogiek eskaintzen dituzten aukerak eta erantzunaren eraginkortasuna hautematen ditu, eta ekoizpen artistikoetan erabiltzen. - Ekoizpen artistiko berean hizkeren artean sortzen diren elkarreraginek adierazpenari eta komunikazioari egiten dieten ekarpena hautematen du. - Hainbat fasetan egituratutako lan-metodoa planifikatu eta garatzen du. - Lan-plana azaltzen du, proiektu artistikoaren helburua ahaztu gabe. - Egindako lanari buruz hausnartzen du, eta hobe ditzakeen alderdiak identifikatzen ditu. | <ul style="list-style-type: none"> - Ekoizpen artistiko konplexuak sortzen ditu, era askotako adierazpen-baliabideak erabilia, eta bakoitza arrazoituta. - Era askotako ekoizpen artistikoak bilatzen ditu, bere adierazpen- eta komunikazio-prozesuetatik ezberdinak direnak. - Arazo berari aurre egiteko soluzio bat baino gehiago hartzen ditu kontuan, eta esanahi ezberdinak lortzeko elementuak eta baliabideak aldatzen ditu. - Besteen obra artistikoetan teknologiak erabili ote diren ikertzen du, eta bere ekoizpenetan txertatzen saiatzen da. - Ekoizpenetan, bere adierazpen- eta komunikazio-beharren arabera hizkera artistiko bat baino gehiago erabiltzeko arrazoiak ematen ditu. - Proiektu artistikoa koherentziaz garatzen eta zuzentzen du, hasierako ideiatik hasi eta proiektua bukatu arte. - Garatu duen prozesu artistikoaren faseak behar bezala arrazoitzen ditu. - Lan-planak berrikusten ditu, garapena ebaluatzen du, eta emaitza hobe lortzeko aldaketak egiten ditu. |

5. Hizkera artistikoen inguruko ezagutza nahikoa izatea, adierazteko eta komunikatzeko baliabide gisa erabili ahal izateko, eta obra artistiko eta kulturaletan identifikatu ahal izateko.

- Hizkera artistikoen oinarrizko elementuak ezagutzen ditu, eta ekoizpenetan behar bezala erabiltzen ditu.
- Hizkera artistikoek eskaintzen dituzten teknikekin, baliabideekin eta konbentzioekin esperimendatzen du, soluzioak bilatuta eta bere ideiei, sentimenduei nahiz emozioei erantzuna emango dieten estrategiak aplikatuta.
- Ikuspuntu tekniko eta formaletik egokiak diren erantzunak ematen dizkie ekoizpen artistikoei.
- Ekoizpen artistikoei zentzua emateko erabili dituen tekniken, tresnen eta materialen hautaketa egoki arrazoitzen du.
- Planteatutako arazo artistikoari erantzuna emateko egokiak diren euskarriak, materialak, tresnak eta prozedurak zuzen eta sormenez erabiltzen ditu.
- Egungo ekoizpen artistiko eta kulturalaren esparruetan adierazpen- eta komunikazio-baliabide gisa teknologiek duten garrantziaz eta protagonismoaz jabetzen da.
- Ekoizpen artistiko berean hizkeren artean sortzen diren elkarreraginak adierazpenari eta komunikazioari egiten dieten ekarpena hautematen du.
- Ekoizpen artistiko globaletan (musikalak, *performanceak*, instalazioak...) parte hartzen duten adierazpen-moduen arteko aukerak saiateratu ditu bere ekoizpenetan.

| Hasierako maila | Erdi-maila | Maila aurreratua |
|--|---|--|
| - Zenbait hizkeren oinarrizko baliabide batzuk ezagutzen ditu (elementu formalak, teknikak, tresnak...), eta bere ekoizpenetan txertatzen saiatzen da. | - Ezagutzen dituen hizkera artistikoen baldintzak egoki erabiltzen ditu. | - Proposamen artistikoak egitean, hizkera artistikoen baliabideak kontzienteki eta helburu batekin erabiltzen ditu. |
| - Ikuspuntu tekniko eta formaletik begiratuta egokiak diren erantzunak bilatzeko jarrera du; gidatutako proposamenen bitartez, betiere. | - Hizkera artistikoen teknikek, baliabideek eta konbentzioek eskaintzen dituzten aukerak aztertzen ditu, eta ekoizpenei sormenezko erantzunak ematen saiatzen da. | - Hizkera artistikoen teknika, baliabide eta konbentzioekin esperimendatzen du, eta lortzen dituen emaitzak ekoizpenetan txertatzen. |
| - Hizkera artistikoak egoki erabilia, oinarrizko erantzun artistikoak garatzen ditu. | - Erantzun artistikoetan hizkera artistikoak egoki erabiltzen saiatzen da. | - Adierazteko eta komunikatzeko asmoak garatzen ditu, eta hizkera artistikoen teknika eta baliabideak era sortzaile eta berritzailean erabiltzen ditu. |
| - Aukeratzen dituen teknikak, tresnak eta materialak sinpleki justifikatzen ditu. | - Ekoizpen artistikoetan erabiltzen dituen teknikak, tresnak eta materialak era logikoan azaltzen ditu. | - Ekoizpen artistiko jakin baterako aukeratu dituen teknika, tresna eta materialak argudioekin defendatzen ditu. |

| | | |
|--|--|--|
| <p>- Arazo artistiko jakin batzuei erantzuna emateko egokiak diren euskarriak, materialak, tresnak... identifikatzen ditu.</p> <p>- Teknlogiek artearen eta kulturaren esparruan eta ekoizpenetan eskaintzen dituzten aukerak aztertzen ditu.</p> <p>- Obra artistikoetan eta kultura bisualeko produktuetan hizkera bat baino gehiago txertatzen denean gertatzen diren aldaketak identifikatzen ditu (esanahiarenak, informazioarenak...).</p> <p>- Hainbat hizkera-erregistro erabiltzen dituzten euskarri estetikoak (komikien, iragarkien...) kode bereziak ezagutzen ditu, eta bere ekoizpenetan erabiltzen.</p> | <p>- Erantzun artistikoetan erabiltzen dituen baliabideen (materialak, tresnak, prozedurak...) eta adierazteko eta/edo komunikatzeko asmoen artean loturak ezartzen ditu.</p> <p>- Teknlogiek (batez ere, ordenagailuak) erantzun azkarragoak lortzeko eta produktu artistikoak pertsona gehiagori eta bizkorrago helarazteko eskaintzen dituzten abantailak aztertzen ditu.</p> <p>- Zenbait ekoizpen artistiko eta kulturaletan (jokoetan, multimedien, komikietan, musikan, webguneetan...) hizkera artistikoek komunikazioari egiten dioten ekarpenaz jabetzen da.</p> <p>- Adierazpen eta komunikazio aberatsagoa lortze aldera, ekoizpenetan hizkera artistikoak nahasteak eskaintzen dituen aukerak aztertzen ditu.</p> | <p>- Arazo artistikoei erantzuna emateko materialak, tresnak... egoki aukeratzen ditu, eta sormenez erabiltzen.</p> <p>- Baliabide informatikoak adierazteko eta komunikatzeko asmoak zein beharrak zuzen garatu eta zabaltzeko tresnak direla ulertzen du.</p> <p>- Obra artistikoetan eta kulturaren produktuetan hizkera bat baino gehiago erabilia sortzen diren adierazpen eta ideien transmisio-emaitzak aztertu eta interpretatzen ditu.</p> <p>- Hala behar izanez gero, hizkera bat baino gehiago txertatzen du ekoizpenetan eta elkarreraginak arrazoitzen ditu.</p> |
|--|--|--|

6. Sormen artistikoko prozesuetan beste pertsonekin elkarlanean jardutearen garrantzia baloratzea.

- Proposamen artistikoak sortzerakoan, talde-lanaren eta taldean egindako proiektuen garrantziaz jabetzen da.
- Lan partekatuaren erantzukizuna hartzen du, lankideen ekarpenak errespetatuta.
- Taldeko proiektu artistikoan koherentziaz parte hartzen du, hasierako ideiatik hasi eta proiektua bukatu arte.
- Taldean obra konplexuak ekoiztu eta planifikatzen ditu, adierazpen eta komunikazio artistikoko hizkera bat baino gehiago erabilia.
- Proiektu artistikoak planifikatu eta ekoizteko, talde-lanaren dinamika ebaluatzen du.

| Hasierako maila | Erdi-maila | Maila aurreratua |
|---|---|---|
| <ul style="list-style-type: none"> - Adierazpen artistiko batzuetan, sortzaile baten baino gehiagoren parte-hartzea identifikatzen du. - Proiektu artistikoa egiteko, taldekide bakoitzaren zereginak eta beharrak errespetatzen ditu, neskak edo mutilak diren bereizi gabe. - Lan-prozesua antolatzen zein proiektu artistikoa garatzen parte hartzen du, ematen zaizkion urratsak jarraituta eta ekarpen pertsonalak eginda. - Obrak ekoizterakoan hizkera artistiko bat baino gehiago erabiltzeko proposamenak egiten ditu. - Talde-lanaren dinamika aztertzen du, eta proiektu artistikoaren bilakaerari buruzko iritzia ematen du, soluzioak emateko arazoak baditu ere. | <ul style="list-style-type: none"> - Talde-lanak sorkuntza artistikoari aberastasuna ematen diola ulertzen du. - Talde artistikoa osatzen duten kideekin elkarlanean parte hartzen du, neskekin zein mutilekin, taldeko lan artistikoak egiteko. - Taldeko zereginak antolatzen eta banatzen laguntzen du, eta proiektu artistikoa garatzen ere parte hartzen du, informazioa, ideiak... partekatuta. - Adierazpen eta komunikazio artistikoaren hainbat moduk osatutako proiektu artistiko bat talde-lanean egiteko plangintza egiten du. - Taldekideekin lanaren bilakaeraz hitz egiten du, sortutako arazoei irtenbideak ematen laguntzen du, eta izan dituen zailtasunetatik ikasten du, hurrengo proiektuetarako. | <ul style="list-style-type: none"> - Sorkuntza artistikoan parte hartzen duten pertsonen funtzio eta erantzukizunek lanaren emaitza indartu eta aberasten dutela ulertzen du. - Proiektuan aktiboki parte hartzen du, taldekideen ideiak eta ekarpenak errespetatuta, neskak edo mutilak diren bereizi gabe. - Lana behar bezala aurrera eramaten laguntzen du, taldean komunikazioa, zereginen banaketa, giro egokia eta batasuna sustatuta. - Talde-lanak egiten ditu, adierazpen eta komunikazio artistikoaren hainbat modu txertatuta, proiektuak dituen helburuen arabera. - Taldekideekin proiektu artistikoaren inguruan hausnartzen du, sortutako zailtasunei erantzuteko soluzioak ematen ditu, eta badaki hurrengorako zer hobetu behar den. |